

55. ALDIZKARIA - 1999ko maiatzaren 5a

TRAFIKOAREN ORDENANTZA

ORDENANTZAREN AURKIBIDE OROKORRA

- Jokabiderako arau orokorrak..... 1-7 artikulua.
- Bizikletak eta ziklomotoiak..... 8-16 artikulua.
- Zamaanak..... 17-23 artikulua.
- Merkataritzako gai arriskutsuak eta garraioetako ibilgailu handiak..... 24-26 artikulua.
- Oinezkoendako alderdiak..... 27-32 artikulua.
- Autobusak, kamioiak, atoiak eta karabanak aparkatzea 33-38 artikulua.
- Trafikoaren kontrol eta antolamendurako neurriak..... 39-46 artikulua.
- Garraio publikoaren geralekuak..... 47-50 artikulua.
- Ibilgailu abandonatuak..... 51-52 artikulua.
- Gelditu eta aparkatzea..... 53-57 artikulua.
- Ibilgailuak bide publikotik kentzea..... 58-61 artikulua.
- Zehapen prozedura..... 62-67 artikulua.
- Aldi Baterako Aparkatze Murriztuko Eremuaren arautzea 68-90 artikulua.
- Azken xedapena eta xedapen iragankorra.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2-b) artikulua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 29. artikulua eta Trafikoari, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikuluduna aldatzeko martxoaren 24ko 5/1997 Legearen 7-b) artikulua udalerraren gain uzten dute hiri barneko bideetako trafikoaren eta zirkulazioaren alorreko eskumena. Hortaz, haietan xedatutakoari jarraikiz eman da ordenantza hau.

JOKABIDERAKO ARAU OROKORRAK

1. artikulua.- Ibilgailuek debekatua dute asotsa egitea seinale akustikoak desegokiro erabiliz edo tupustean azeleratuz, bai eta ihes-hodi trukatuak, ozen-ozen jarritako musika ekipoek edo bertzelako ezohiko inguruabarrek eragin dezaketena ere.

2. artikulua.- Ibilgailuen soinu-alarmaak arrazoirik gabe pizteagatik zehapena ezarriko da.

3. artikulua.- Debekaturik dago bidera botatzea suteak, zikinkeria, zirkulaziorako arriskua edo, oro har, kaltea eragin dezaketen gauzak edo isuriak.

4. artikulua.- Oinezkoek debekaturik dute bidea zeharkatzea baimenduta ez dauden tokietatik. Toki baimenduetatik egin beharko dute, ahal den azkarren, gelditu gabe edo bertze erabiltzaileei traba egin gabe, eta zirkulazioa oztopatu gabe.

5. artikulua.- Galtzada gaizki baldin badago, obrak, eguraldia edo bertze zerbait dela eta, gidariek kasu eman beharko dute, istripurik eta oinezkoendako eragozpenik gerta ez dadin.

6. artikulua.- Arrastiritik argi-hastera bitarte ibilgailuek hurbilerako argiak piztuta eraman beharko dituzte udal mugapeko galtzada guztietan. Motozikletek egun osoan

eramanen dituzte argiak piztuta. Halaber, hurbilerako argiak piztuta eraman beharko dira eguraldiak hala eskatzen duenean.

7. artikulua.- Debekaturik dago gidatu bitartean telefonoak edo komunikatzeko antzeko bitartekoak erabiltzea, hauek "eskuak libre" izeneko gailua dutenetakoak ez badira, behintzat.

BIZIKLETAK ETA ZIKLOMOTOREAK

8. artikulua.- Ziklomotoreen, bizikleten, monopatinen eta gidarien energiak mugitzen dituen gainerako ibilgailuen kasuan, gidariek zirkulazioaren arau orokorrak bete beharko dituzte.

9. artikulua.- Bizikleta eta ziklomotoreak oinezkoendako alderdietan edo espaloi eta pasealekuetan aparkatu ahal izanen dira, Udalak ezarritako gune erreserbatu eta behar bezala seinalatuetan.

10. artikulua.- Aparkatzeko gune horietara oinez sartuko dituzte ziklomotoreak, ganean jarrita joan gabe eta motoreak itzalirik, eta haren indarrak soilik espaloien koska igotzeko baliatuz.

11. artikulua.- Ziklomotoreak semibaterian aparkatuko dira galtzadan, gehienez ere metro eta erdiko zabalera okupatuz.

12. artikulua.- Motozikleta edo ziklomotore bat bi ibilgailuren artean aparkatzean, ez da horietara pasatzea galaraziko, ez eta zirkulaziora itzulzeko maniobra ere.

13. artikulua.- Debekaturik dago bizikletak, patinak eta monopatinak espaloietan eta parke eta lorategietako karraketan ibiltzea, horretarako erreserbatutako erreirik ez bada.

14. artikulua.- Bizikletak galtzadan barna joanen dira, ahal denik eta hurbilen espaloitik. Errei bat baino gehiagoko bideetan, albokoetan barna ibiliko dira. Errei bat baino gehiagoko bidegurutzetara hurbiltzean, egin beharreko biraketari dagokion erreieren eskuineko erreieren eskuinetik joanen dira.

15. artikulua.- Debekaturik dago bizikletak gauez ibiltzea aitzineko argia eta gibebeko islatzailea, gutxienez, ez badaramate.

Argi keinukaririk ez duten bizikleta eta ziklomotoreen gidariek garaiz seinalatu beharko dituzte egin beharreko norabide aldaketak eta biraketak besoak erabiliz, erregelamenduak adierazten duen bezala.

16. artikulua.- Ziklomotoreen gidariak eta erabiltzaileak beharturik daude kaskoa erabiltzera, behar bezala homologatua, ongi jantzia eta lotua.

ZAMALANAK

17. artikulua.- Udalak bereziki zamalanetarako erreserbatutako guneak ezartzen ahalko ditu, eta erregelamenduzko seinale etzan edo zutikakoen bidez adieraziko ditu.

18. artikulua.- Gune horietan salgaien garraiorako 2 metro zabal edo 5,5 metro luze baino gehiago ez badira, horretarako erreserbatutako guneen barnean eta erregelamenduzko seinale etzan edo zutikakoen bidez adierazitako ordutegien barnean eginen dira zamalanak.

19. artikulua.- Zamalanetarako leku erreserbatuetan, lan horiek berak egiteko nahitaezko denboran baizik ez da aparkatzen ahal, eta inoiz ez da 30 minutu baino gehiago izanen.

20. artikulua.- Inolaz ere ez daiteke oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa eragotz edo oztopa, ez eta atari, saltoki edo baimendutako pasabideen sarbideak ere. Horretarako, zamalanetan erabiliko diren merkataritzako gaiak, materialak eta gauzak lurrean utzi gabe zuzenean eramanen dira ibilgailutik eraikinera edo alderantziz.

21. artikulua.- Lan horiek egiteko behar adina langile egonen da eta arretaz ariko dira, azkar, arriskurik gabe eta asots gutxi atereaz egiteko.

22. artikulua.- Ibilgailuak espaloiarekin batean lerrokatu beharko dira, ertzaren kontra, aitzinaldea zirkulazio orokorraren norabidean, salbu eta bateriako aparkalekuetan, kasu horretan ibilgailuak ezin izanen baitira horretarako seinalatutako eremutik kanpora atera.

23. artikulua.- Udalak aparkatzeko aldi baterako erreserbak eman ahal izanen ditu lan berariazkoak egitearren (aldaerak, fuelaren hornidura, obrak, etab.), aldez aurretik eskatu eta dagokion tasa ordainduta.

MERKATARITZAKO GAI ARRISKUTSUAK ETA GARRAIOETAKO IBILGAILU HANDIAK

24. artikulua.- Merkataritzako Gai Arriskutsuen Errepide bidezko Garraioaren Erregelamendu Nazionalaren (1754/1976 Dekretuaren bidez onetsia) 1-a, 1-b, 1-c eta 2 motetan sartutako merkataritzako gai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek eta Erregelamendu horren 1 edo 2-A arrisku etiketak eraman behar dituztenek debekatua dute ibiltzea Barañaingo hirigunean zehar.

25. artikulua.- 24. artikuluan aipatutako ibilgailuek Barañaingo udal mugape osoan aparkatzea erabat debekatua dute.

26. artikulua.- Haien ezaugarriak, luze-zabalerak edo zamaren kokaera direla eta, Zirkulazioaren Kodearen 222. artikuluan ezarritako baimenak behar dituzten ibilgailuek Barañaingo Udalari eskatu beharko diote Udaltzaingoak hirian zehar gidaritza, zaintza eta laguntza zerbitzua egiteko, eta dagokien tasa, Barañaingo Udalaren ordenantza fiskalean ageri dena, ordaindu.

OINEZKOENDAKO ALDERDIAK

27. artikulua.- Barañaingo Udalak ibilgailuak ibili eta aparkatzeko debekua, erabatekoa edo hein batekoa, ezarri ahal izanen du udalerriko alde batzuetan. Horiexek izanen dira oinezkoendako alderdiak.

28. artikulua.- Alderdi hauek zutikako seinaleen bidez zedarrituko dira, bai eta ibilgailuak toki horietara sartzea galarazi edo mugatuko duten bertze elementu batzuk ezarri ere.

29. artikulua.- Oinezkoendako alderdietan ibilgailuak ibili eta aparkatzeko debekua hiru motatakoa izan daiteke:

a) Zedarritu eta seinalatutako alderdiaren barrenean dauden bide guztiak hartu ahal izanen ditu.

b) Ibili eta aparkatzeko debekua ordutegi batera mugatu ahal izanen du.

c) Finkoa izan daiteke edo soilik astegun batzuetan aplikatu.

30. artikulua.- Nolanahi ere, murrizketa hauek ez dute eraginik izanen Udalak, tokiaren zein ibilgailuaren erabiltzailearen ezaugarriak kontuan hartuta, baimena emandako ibilgailuen kasuan.

31. artikulua.- Oinezkondako alderdietan oinezkoak lehentasuna izanen du ibilgailuekiko, salbu eta larrialdietan ibili eta erregelamenduari jarraikiz hala erakusten dutenek.

32. artikulua.- Barañaingo oinezkoendako alderdi guztietan abiadura mugaturik egonen da, eta 20 km ordukoa izanen da, gehienez.

AUTOBUSAK, KAMIOIAK, ATOIAK ETA KARABANAK APARKATZEA

33. artikulua.- Hona arau orokorra: 5.000 k.tik gorako B.G.P. duten ibilgailuek debeku dute aparkatzea udal mugapeko bide guztietan.

34. artikulua.- Orobat, 21 bidaiari baino gehiagorendako tokia duten autobusek debeku dute aparkatzea udal mugapeko bide guztietan.

35. artikulua.- 33 eta 34. artikuluetan ezarritakoa ukatu gabe ere, Udalak ibilgailu mota hauek -eta horiek baizik ez- aparkatzeko alderdi berariazkoak ezartzen ahal ditu. Horrela bada, erregelamenduz ezartzen den udal agintariaren baimena beharko dute.

36. artikulua.- Debeku horiek ez dira bete beharko behar bezala justifikaturiko salbuespeneko kasuetan, aldez aurretik aginte eskudunaren baimena eskuratu baldin bada.

37. artikulua.- Karabanak eta atoiak aparkatzeko beharrezkoa izanen da udal organo eskudunaren baimen berariazkoa eskuratu eta lurzorua probetxamendu bereziaren prezio publikoa ordaintzea.

38. artikulua.- Erabat debekaturik dago karabana, atoi eta etxebizitza-ibilgailuetan bizitzea udal mugapearen barrenean, salbu eta horretarako egokitutako tokietan. Horiek osasungarritasuna eta higiena bermatzeko adina bitarteko izan beharko dute.

TRAFIKOAREN KONTROL ETA ANTOLAMENDURAKO NEURRIAK

39. artikulua.- Udalak egokitzat jotzen dituen neurriak hartu ahal izanen ditu trafikoa antolatzeko, zenbait tokitan zirkulatzeko baldintzak aldatuz, murriztuz edo debekatuz, betikoz nahiz aldi baterako, aparkalekuak, zamalanak eta pertsona zein salgaien garraioa berrantolatuz eta arautuz.

40. artikulua.- Udaltzaingoak aldi baterako aldatu ahal izanen du zirkulazioaren antolamendua, bai eta horretarako sarrerak debekatu edo murriztu ere, zirkulazioa seguru eta errezagoa izan dadin.

41. artikulua.- Udaltzaingoak trafikoari dagokionez egindako adierazpenek, oinezkoei zein gidariei, lehentasuna izanen dute lehenagoko bertze edozein seinazio edo arautegiren aldean. Adierazpen horiek argiak eta gidariarentzat edo oinezkoarentzat ulertterazak izan beharko dira.

42. artikulua.- Udalak aldi baterako debekatu ahal izanen du aparkatzea jarduera baimenduek okupatu beharreko eremuetan eta konpondu, seinaleztatu, mantendu edo garbitu behar diren tokietan. Kasu horietan eremu horiek mugatuko dira, debekua 24 ordu lehenagotik seinalatur, neurriari noiz emanen zaion hasiera adierazten duten seinaleen bidez.

Epe horretan kentzen ez diren ibilgailuak Udalaren garabi zerbitzuak eramanen ditu, inguruko toki batera edo udal biltegira, baina jarduketa horrek ez du ekarriko tasa ordaindu beharrik ez eta trafiko salaketarik ere. Kasu hauetan ibilgailuen titularrei jakinaraziko zaie non dauden.

43. artikulua.- Bide publikoan edozein objektu jartzeko Udalaren baimena beharko da. Horrelakorik ez duen oro berehalakoan kenduko da interesatuaren kargura, bai eta baimena izanik ere bideetako segurtasuna edo osasungarritasuna ziurtatzeko neurriak hartu ez dituztenen kasuan ere.

44. artikulua.- Erabat debekaturik dago zirkulazio seinaleak paratzea aurretik Udalaren baimena izan gabe.

Inolaz ere ez da baimenduko publizitatea jartzea zirkulazio seinaleetan edo haien ondoan.

45. artikulua.- Udalak zenbait bide lehentasunekoak edo zirkulazio dentsitate handikoak direla deklaratu ahal izanen du, bigarren ilaran gelditzea debekatu eta bertan egindako arau-hausteengatik zehapenei isuna ezartzeko.

46. artikulua.- Barañaingo udal mugapean, ibilgailuak aparkatzeko bide publikoetan dagoen lekua ez da nahi adina. Hortaz, haren erabilera solidarioa nahitaezkoa da.

Alde horretatik, 7 egunetan ezarri da ibilgailu batek leku berean eten gabe aparkaturik gehienez ere egin dezaken denbora. Denbora hori iraganik, ibilgailu bera ez da aparkatzen ahalko lehengo lekutik 100 metro baino guttiagotara.

Alderdi baimendu batean luzeegi aparkatzeak zehapena ekarriko du.

GARRAIO PUBLIKOAREN GERALEKUAK

47. artikulua.- Barañaingo Udalak zehaztuko du non kokatu beharko diren garraio publikoaren eta bidaiarien lineaz kanpoko garraioaren geralekuak.

Autobusak geratu beharko dira horretarako prestatutako tokian, zirkulazio erreiak libre utziz.

48. artikulua.- Geralekuetan bidaiariak hartu eta uzteko behar den denboran baizik ezin da egon, linea hasiera edo amaierako seinalea dutenetan izan ezik.

49. artikulua.- Taxi zerbitzurako garraio publikoko geralekuetan ibilgailu hauek egoten ahal dira, soilik bidaiarien eta gainerakoen zain dauden bitartean.

50. artikulua.- Ibilgailuen kopurua ez da inolaz ere izanen geralekuak har ditzakeen ibilgailuena baina handiagoa.

IBILGAILU ABANDONATUAK

51. artikulua.- Ibilgailu abandonatuak karrikan luzaroan eta mugagabeko epean egon ez daitezten, bide publikoa erabiltzeko ohiko aukerak murriztu eta narriadura estetikoa eta zikinkeria ekartzen baitituzte, ondoko artikuluetan

aurreikusitako jarduketak egingen dira haien gainean, kanpoko itxuragatik, toki berean emandako denboragatik eta bertze inguruabarrak direla eta abandonaturik dagoela pentsarazten badute:

52. artikulua.- Barañaingo Udalak ibilgailuaren erregistroko titularrari jakinaraziko dio ustez abandonatua dagoela eta honek bortz egun naturaleko epea izanen du, egokitzen jotzen dituen alegazioak eta, beti ere, ibilgailuaren aseguruaren kopia aurkezteko. Ibilgailuak arriskuren bat sortzen badu kentzen ahalko da eta ondotik jakinarazi titularrari.

Aurreko lerroaldean aipatutako epean titularrak alegaziorik aurkezten ez badu, ez eta indarra duen asegururik ekarri ere, ibilgailua udal altxatokira eramanen da. Ibilgailua behin altxatokian utzita, handik eraman ahal izateko beharrezkoa izanen da indarra duen asegurua aurkeztu eta dagokion tasa ordaintzea.

Ibilgailu abandonatua altxatokira eraman ondotik hogeita hamar egun natural iraganik titularrak berreskuratzeko eskaerarik egin gabe, desegitera bidaliko da eta hala jakinaraziko zaio Probintziako Trafiko Buruzagitzari, baja emateko dagokion erregistroan.

GELDITU ETA APARKATZEA

53. artikulua.- Trafikoari, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen 68. eranskinari jarraikiz, gelditzea da ibilgailua 2 minutu baino gutxiago edukitzea mugitu gabe, pertsonak hartu edo uzteko edo zamalanak egiteko.

Aparkatzea da aurreko lerroaldeko egoeran, hau da, geldituta, ez dagoen ibilgailua mugitu gabe edukitzea.

54. artikulua.- Ibilgailua geldituta dagoenean, arau orokorra da gidaria ezin dela ibilgailutik aldentu, eta, salbuespen gisa, hala egiten badu, motorearen itzali beharko du eta hurbil egon, eskatzen zaion unean edo egoerak behartuta, kendu ahal izateko.

55. artikulua.- Erabat debekaturik dago gelditzea:

- a) Babeslekuetan, babesguneetan, erdibitzailuetan, oinezkoendako alderdietan eta trafikoa bideratzen duten gainerako elementuetan.
- b) Eraikinetako sarrera-irteeretan, dagokien pasabide seinalea dutenetan.
- c) Seinaleak ongi ikustea eragozten den tokietan.
- d) Izkina, bidegurutze edo bidebanatzeetatik 5 metro baino gutxiagotara.
- e) Zubietan, tuneletan eta gainetik pasabideen azpian, kontrako seinalerik ez badago.
- f) Espaloietan, pasealekuetan, oinezkoendako alderdietan eta lorategietan.
- g) Zirkulaziorako edo zenbait erabiltzailearen zerbitzurako erreserbatutako erreie edo bide-zatietan.
- h) Ezinduendako edo bertze erabilera batzuetarako espaloi-oketsetan.
- i) Zirkulazioaren erreie bat oztopatzen den tokietan.
- j) Seinaleak debekatzen duen tokietan.
- k) Seinaleak baimendutako biraketa egitea eragozten denean.
- l) Hiriko garraio publikorako baizik ez diren geraleku eta aparkalekuetan.
- m) Zirkulazioa oztopatzen den bertze toki guztietan, denbora txikienerako bada ere.

56. artikulua.- Ibilgailuak ilaran aparkatu ahal izanen dira, hau da, zintarriarekin batean lerrokatuak; baterian, hau da, zintarriarekiko perpendikularrean; edo semibaterian, zeharka.

56.1. Zoladuran seinaleak dituzten aparkalekuetan, ibilgailuak markatutako perimetroaren barnean aparkatuko dira.

56.2. Ibilgailuak zintarritik ahal den hurbilen aparkatuko dira, galtzadaren alde hori garbitu ahal izateko adina tarte utziz.

56.3. Bide publikoetan ezin izanen dira aparkatu ibilgailu motoretik bereizitako atoiak.

56.4. Bertze erabiltzaileek gainerako tokia ahalik eta hobekien erabiltzeko maneran aparkatuko da.

Baterian aparkatuz gero, alde bietan aparkatutako ibilgailuetara arazorik gabe sartzeko maneran eginen da.

56.5. Zamalanetarako, zerbitzu ofizialetarako, eta abarretarako aldi baterako erresebatutako alderdietan aparkatzea libre izanen da ordutegitik kanpo, salbu eta espreski debekaturik baldin badago.

57. artikulua.- Erabat debekaturik dago aparkatzea:

- a) Seinaleek debekatzen duten tokietan.
- b) Gelditzea debekatuta dagoen tokian.
- c) Bigarren ilaran, edozein kasutan.
- d) Zamalanetarako seinalatutako tokietan, debora mugen barrenean.
- e) Pasabideetan, erabat edo hein batean.
- f) Zaborrontzien ondoan, zabor bilketa galaraziz edo oztopatuz.
- g) Aparkaleku publiko batean, ongi aparkatutako ibilgailu bat ataratzea eragotziz edo oztopatuz.
- h) Espalorik ez duten karrika urbanizatueta.
- i) Ezinduek ez bertze inork erabiltzeko seinalatutako tokietan.
- j) Galtzadaren erdian.
- k) Zerbitzu publikoaren, Barañaingo Udalaren, erakunde ofizialen eta abarren ibilgailuendako erresebatuako aparkalekuak.
- l) Behar bezala seinalatutako toki erresebatuetan.

IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK KENTZEA

58. artikulua.- Udaltzainek, egin behar duenak egiten ez badu, ibilgailuak bide publikotik kentzen ahalko dituzte honako kasu hauetan:

a) Arriskutsua denean edo traba larria egiten baldin bazaio ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioari nahiz zerbitzu publiko baten funtzionamenduari, eta orobat ibilgailu hori bide publikoan abandonatua dagoela uste izatekoa denean.

b) Istripuren bat izan eta abiatu ezinik gelditzen denean.

c) Ibilgailua bera hondatu delako, mugigaitzen bada.

d) Trafikoari, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen 67.1 artikuluaaren hirugarren letrorainean xedatutakoari jarraikiz, ibilgailua geldiarazi ondotik, arau-hausleak isunaren zenbatekoa ordaindu nahi ez duenean edo hura ordaintzeko bermerik eman nahi ez duenean.

f) Ibilgailu bat aparkatuta dagoenean erreietan edo zirkulaziorako edo zenbait erabiltzailearen zerbitzurako soilik erresebatutako bide-zatietan.

g) Zaborrontziak husteko lanak oztopatzen dituzte.

59. artikulua.- Kasu bakar batzuk baizik ez aipatzearren, ibilgailua ordenantza honen aurreko artikulua a) idazatian zehaztutako inguruabarretan dagoela eta beraz, kentzea justifikatua dagoela ulertuko da:

- 59.1. Gelditzea debekaturik dagoen toki batean aparkatuta dagoenean.
- 59.2. Ibilgailua bigarren lerroan eta gidaririk gabe aparkatuta dagoenean.
- 59.3. Alaka baten erpinetik edo izkina baten mutur edo eskuadratik ateratzen denean, bertze gidariei maniobra arriskutsuak egitera behartuz.
- 59.4. Oinezkoen pasabide seinalatu batean edo ezinduendako espaloi-okets batean aparkatuta dagoenean.
- 59.5. Erabiltzeko baimendutako orduen barnean pasabide bat osorik edo zati batean okupatzen duenean.
- 59.6. Zamalanetarako erreserbatutako toki batean, erabilera orduetan, aparkatuta dagoenean.
- 59.7. Garraio publikoaren geraleku seinalatu eta mugatu batean aparkatuta dagoenean.
- 59.8. Larrialdi eta segurtasunerako espreski erreserbatutako tokietan aparkatuta dagoenean.
- 59.9. Elbarriendako toki erreserbatu batean aparkatuta dagoenean.
- 59.10. Espaloi, ibiltoki, babesgune, pasealeku, edo zoladuran zerrendak pintatuta dauden tokietan, espreski baimenduta dagoenean izan ezik.
- 59.11. Bidearen gainerako erabiltzaileei trafiko seinaleak ikustea eragozten dienean.
- 59.12. Biraketa eragotzi edo hura egiteko maniobrak egitera behartzen duenean.
- 59.13. Bide batetik datozen gidariei bertze bidea ikustea trabatzen dienean.
- 59.14. Eraikin bateko sarrera osorik nahiz zati bat oztopatzen duenean.
- 59.15. Galtzadaren erdian aparkatuta dagoenean.
- 59.16. Beti ere, aurreko kasuetan bezala, arriskua edo zirkulazioari zein zerbitzu publiko baten funtzionamenduari eragozpen handia sortzen baldin badio.

60. artikulua.- Arau-hausterik egon gabe ere, bide publikotik ibilgailuak kendu ahal izanen dituzte kasu hauetan:

- 60.1. Behar bezala baimendutako ekitaldi publiko bat egiteko erreserbatu den toki batean aparkatuta baldin badaude.
- 60.2. Bide publikoa garbitu, konpondu edo seinaleak paratu ahal izateko ibilgailua kendu beharra dagoenean.
- 60.3. Larrialdietan.
Inguruabar hauen abisua lehenbailehen egin beharko da eta baimendutako tokirik hurbilenera eramanen dira ibilgailuak, edo udal altxatokira, eta titularrei non dauden jakinaraziko zaie.
Eramateak ez du inolako ordainketarik sorraraziko, ibilgailua noranahi eramanda ere.

61. artikulua.- Ibilgailua kentzeko lanak hasita, bertan behera utziko dira baldin eta gidaria agertzen bada, beti ere Barañaingo Udalaren ordenantza fiskaletan kontzeptu horregatik agertzen den tasa ordaindu ondoan.

ZEHPEN PROZEDURA

62. artikulua.- Ordenantza honetan araututako gaietan eraman beharreko prozedura Trafiko, Motoredun Ibilgailu eta Bide Segurtasunaren arloko Zehapen Prozeduraren Erregelamendua onetsi zuen otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuan ezarritakoa izanen da, eta aipatutakoan aurreikusirik ez daudenetan

Zehapen Ahalmenaz Baliatzeko Prozeduraren Erregelamandua, abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa, aplikatuko da.

63. artikulua.- Ordenantza honetan araututakoaren kontrako arau-hausteengatik irekitako espedienteak Barañaingo Udaltzaingoko Buruzagitzak izapidatuko ditu, edo haren eginkizunak betetzen dituenak. Udaltzainburua kanpoan badago edo haren errefusatze edo abstentzioa, legezko arrazoia dela eta, gertatzen bada, alkate udalburuak izendatzen duenat arituko da haren ordeiz. Izapidaketa amaituta, Barañaingo Udaleko alkate udalburuak emanen du bidezkoa den ebazpena.

64. artikulua.- Zehapena Udalaren eskumenekoa ez den arau-hausteen kasuan, Barañaingo Udaltzaingok salaketa egingen du, ondoren Barañaingo Udalak administrazio eskudunari igor diezaion.

65. artikulua.- Isunarekin batera gidatzeko baimena edo lizentzia bertan behera utzi edo kentzeko zehapena ere jaso dezaketen arau-hausteengatik irekitako zehapen espedienteak, beti ere zehapena Udalaren eskumenekoa den egitateak badira, dagozkion udal organoek izapidatu eta ebatziko dituzte, eta ondotik igorriko zaizkio agintari eskudunari, soilik gidatzeko baimena edo lizentzia bertan behera utzi edo kentzeko balizko zehapena ezar dezan.

66. artikulua.- Jakinarazpenetarako, ibilgailuaren gidariaren eta titularraren helbidea izanen da gidarien eta arau-hausteen erregistroan eta ibilgailuenean, hurrenez hurren, ageri dena. Interesatuak bertze helbide bat ematen badu, aldatu egingen da, horretarako arrazoia, instruktorearen iritziz, prozedurari trabak jartzeko ahalegin maltzurra ez bada.

67. artikulua.- Zehapen espedienteen ebazpenaren kontra errekurtsio hauetako bat aurkezten ahalko da:

a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusian dagoen Sailari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoari errekurritzeko asmoaren berri eman ondotik, edo bertzenaz:

b) Gora jotzeko errekurtsioa Nafarroako Administrazio Auzitegian, ebazpena jakinarazten den egunetik hilabeteko epean.

Jarraian zehazten diren artikulua 2014ko ekainaren 24an egindako Osoko Bilkurak hartutako Akordioaren bitartez behin betikoz onartu dira, eta 2014ko uztailaren 21eko 141 ALDIZKARIAN argitaratu dira.

68, 69, 71, 72, 73, 78, 79, 89 eta 90. artikulua 2017ko urriaren 26an egindako Osoko Bilkurak hartutako Akordioaren bitartez behin betikoz onartu dira, eta 2018ko otsailaren 12ko 30. ALDIZKARIAN argitaratu dira.

ALDI BATERAKO APARKATZE MURRIZTUKO EREMURAKO – AAME– BERARIAZKO XEDAPENAK

JUSTIFIKAZIOA

68. artikulua.- Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 2. xedapen gehigarrian; Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide

Segurtasunari buruzko Legearen 7. eta 39. artikuluetan eta Zirkulazioaren Erregelamendu Orokorraren 93. artikuluan ezarritakoak udalerrriak gaitzen ditu hiribideen erabilera xedapen orokorren bitartez arautzeko, baita tasak galdatzeko ere ibilgailuak halako eremu batzuetan aparkatzeagatik. Horrez gain, Barañaingo trafikoa hobetzeko premia dago, eta horretarako bitartekoa da erabilera publikoko bide eta aparkalekuetan ibilgailuen aparkatze zaindua arautzea -nolako funtzioa, halako lekua nahiz denbora-, bateragarri eginez aparkalekuen banaketa zuzena erabiltzaile guztien artean. Horrenbestez, aparkatze mugatu eta murriztuko eremuak arautzen dituzten xedapen hauek ezarri dira.

XEDEA ETA APLIKAZIO ESPARRUA

69. artikulua.- Xedapen hauen bidez jartzen dira arauak aldi baterako aparkatze murriztuaren zerbitzurako, Barañaingo udalerriko 1. eremurako, ondoren zehaztuko den moduan, eta Aldi baterako aparkatze murriztuko eremua, AAME laburtuta, deituko da.

Helburu horretarako ezarritako ordutegian bakarrik aparkatzen ahalko dute eremuan bizilagun txartela agerian duten ibilgailuek, denbora mugarik gabe, baita eremu horretako merkataritza, industria, lanbide edo zerbitzu arloko jardueraren txartela dutenek ere, denbora mugarik gabe horiek ere.

Aparkatze arautuko ordutegietatik kanpo, libre izango da eremuan aparkatzea.

70. artikulua.- Behar bezala seinalizatuko da aldi baterako aparkatze mugatuko eremua.

71. artikulua.- Aldi baterako aparkatze mugatuko eremuan 1. eremuko kaleak sartzen dira, eta xedapen hauen 1. eranskineko planoan adierazi dira; honako hauek dira:

–1. eremuko mugak.

Hiri barneko hirigune osoa Barañaingo Ingurabidea izan ezik, Kirol Etorbidearekin bat egiten duen gurutzegunetik eta Industrialdeko A, B eta C kaleak.

Aurrekoa gorabehera, eta eremu horien barruan diren Erdiko etorbideko eta Barañaingo ingurabidea etorbideko tartearen erdibitzaileei dagokienez, eranskineko planoan zehazten baitira, libre izango da aparkatzea 20:00etatik 08:00ak arte.

Halaber, arauditik kanpo gelditzen dira jarraian zehazten diren eremuak, eta hor libre izango da aparkatzea egunaren 24 orduetan:

- Haraneko Etorbideak, Eultzako Etorbideak eta Valentziako Komunitatea Kaleak (merkatu txikia) mugatzen duten lurzatia.

- Zizur Zendearen Ingurabideak Madrilgo Komunitatea Kalearekin eta Kataluniako Komunitatea Kalearekin bat egiten duen gunetan.

72. artikulua.- Arautzen diren aparkatze murriztuko egunak eta orduak oro har honako hauek dira:

–Lanegunetan:

- Asteleheneko 21:00etatik astearteko 10:00ak arte, murriztua.
- Astearteko 21:00etatik asteazkeneko 10:00ak arte, murriztua.

- Asteazkeneko 21:00etatik osteguneko 10:00ak arte, murriztua.
- Osteguneko 21:00etatik ostiraleko 10:00ak arte, murriztua.
- Ostiraleko 21:00etatik larunbateko 10:00ak arte, murriztua.
- Igandeko 21:00etatik asteleheneko 10:00ak arte, murriztua.

–Jaiegunetan:

- Larunbateko 10:00etatik igandeko 21:00ak arte, libre.

Barañaingo Udalak markatutako jaiegun eta egunentzat, jaiegunentzat markatutakoaren bidez arautuko dira, hau da, jaiegunaren bezperako 10:00etatik azken jaieguneko 21:00ak arte.

Zenbait inguruabarretan komenigarri delako, Barañaingo Udalaren Alkatezak edo Gobernu Batzarrak aparkatze mugatuaren zaintza geldiarazten ahalko du denboran, araututako eremu osoan edo haren zati batean.

1. eremuan, bereziki bizilagunendako diren aparkatze murriztuko guneak ezartzen dira, eta horiek erregulatzeko ordutegia etengabea izango da egunaren 24 orduetan eta astearen 7 egunetan. Eremu horien mugatzea, era berean, 1. Eranskineko planoan azaltzen da.

73. artikulua.- Bide Segurtasunari buruzko Legearen 7. artikuluan ezarritakoarekin bat eta xedapen hauek betetzen direla bermatzearen, kontrol zerbitzua ezarriko da, jendez eta materialez behar dituen bitartekoez hornitua.

74. artikulua.- Berariazko prozedura baten bidez (ordenantza fiskal arau-emailea) ezarriko da eremuan aparkatzeko baimentzen duen txartela eskuratu ahal izateko ordaindu beharreko kostua.

75. artikulua.- Aparkatzeko eremuak ez du mugatutako eremuaren seinalizazioa markatuko duen muga zeharkatuko.

Aparkatze librerako ezarritako denbora iraganik, erabiltzaileak ibilgailua eraman beharko du baldin aldi baterako aparkatze mugaturako ezarritako ordutegiaren barrenean aparkatzeko gaitzen duen txartelik ez badu.

Barañaingo Udalaren Gobernu Batzarrak hala erabakita eta Informazio Batzordeak proposatuta aldatzen ahalko dira aparkatzeko orduak.

76. artikulua.- Aldi baterako aparkatze murriztuko eremuaren barrenean indarra izaten jarraitzen du alde horretako toki zehatz bakoitzeko seinalizazio mugatzaile berariazkoak (zamalantarako guneak ordu baimenduetan, gelditzeko eta aparkatzeko toki debekatuak, eta abar), etorkizunak ekar ditzakeen aldaketak gorabehera (handitu, murriztu, berritik sortu, kendu eta abar).

77. artikulua.- Eremu murriztuan aparkatzeko muga edo murriztapenetik at gelditzen dira:

1. Eremuan aparkatzeko gaitzen duen txartela indarrean duten ibilgailuak; betiere, agerian badute behar bezala.
2. Motozikletak, ziklomotorrak (hiru eta lau gurplekoak izan ezik) eta bizikletak, nahiz eta, betiere, horretarako prestatutako tokietan aparkatu beharko diren eta sekula ere ibilgailuendako erreserbatutako eremuetan.

3. Zamalanetan ari diren merkataritzako ibilgailuak, horretarako ezarritako ordu eta tokietan ari badira.
4. Anbulantziak, zerbitzuan ari direnean.
5. Autotaxi ibilgailuak, gidaria bolantera jarria eta zerbitzu egiten ari bada.
6. Hilotzak eramateko autoak, zerbitzu egiten ari badira.
7. Suhiltzaileen, larrialdietako, Gurutze Gorriaren, DYaren eta poliziaren ibilgailuak, zerbitzu egiten ari badira.
8. Aparkatzeko baimena duten ibilgailuak (elbarriendako erreserba bereziak, hoteletakoak, zentro ofizialetakoak, eta abar), horretarako erreserbaturik dauden toki eta orduetan.
9. Baimena duten beste ibilgailu batzuk.

78. artikulua.- Bizilagunen edo merkataritza, industria, lanbide edo zerbitzuko jardueraren baterako bereizgarria dutenen ibilgailuak zer eremutan aparka daitezkeen zehazteko, eta bakarrik horretarako, xedapen hauen 1. eranskineko planoaren arabera banatu da Barañaingo udalerrriaren esparrua eta, oraingoz, erregulazio honek 1. eremua ukitzen du.

BIZILAGUNAK

79. artikulua.- Baimena duten bizilagunek denbora mugarik gabe aparkatu ahalko dute horretarako ezarritako tokietan.

Bizilagun izaera izateko, txartela eskuratzeari dagokionez, baldintza hauek bete beharko dira:

1.–Pertsona fisikoa izatea eta udalerrriaren barnean dagoen etxebizitza batean erroldatua, eta hura bere ohiko eta benetako bizitokia izatea. Halaber, txartela zein ibilgailutarako eskatzen den, ibilgailu horrek eskatzailearen izenean egon beharko du edo hura ohiko gidaria izan beharko da, edo titularrak eskaera egiteko baimena eman beharko dio; orobat, ibilgailuak leku berean egon behar du helbideratua.

2.–Barañaingo Udaleri bizilagun txartela eskatu eta hura eskuratzea, eredu ofizialaren araberrako eskabidearekin batean agiri hauek egiaztatuta:

a) Nortasun agiri nazionala, eskatzailearen gidabaimena eta ibilgailuaren zirkulazio baimena.

b) Autoaren aseguruua, indarra duena, eta ibilgailuen ikuskapen teknikoaren adostasun txostena, hura eduki behar bada.

c) Aparkatzeko txartela eskuratzeko ezarritako kopurua ordaindu izanaren ziurtagiria.

3.–Bizilagun txartela eskuratuz geroztik egoera aldatu ez eta, beraz, hura lortzeko galdatzen diren baldintzetarik bakar bat ere betetzetik gelditu ez izana.

Udal zerbitzuek beharrezkotzat jotzen diren ikerketak egingo dituzte inguruabar horiek betetzen direla egiaztatzeko.

80. artikulua.- Orobat, txartela eskuratu ahalko dute eremu arautuko etxebizitza batean erroldatuta diren bizilagunek, lan edo enpresa arloko jardueraren ondorioz hari atxikitako ibilgailua erabili ohi badute, betiere alderdi hori frogatuta.

81. artikulua.- Txartela duten bizilagunek denbora mugarik gabe aparkatzen ahalko dute eremu arautuan libre dauden aparkatzeko tokietan. Eremu horretatik kanpo, bizilagunak arau orokorrak bete beharko ditu aparkatzeko tokiak erabiltzeko.

82. artikulua.- Bizilagun txartela ibilgailuen aitzineko haizetakoen barne aldean paratuko da, kanpotik garbi ikusteko maneran. Txartelean zein urte agertzen den, urte hartarako balioa du eta eskatzailearentzat eta eskariko ibilgailurako baizik ez da izanen.

83. artikulua.- Txartela eskuratzen duten eskatzaileak haren erantzule izanen dira, eta etxez edo ibilgailuz aldatzen direnean, edo hartarako eskubidea ematen duen edozein baldintza aldatzen denean, horren berri eman beharko diote Udalari, gehienez ere astebetean. Hartara, txartel berria eskuratuko dute, horretarako eskubidea izanez gero, edo anarteraino indarra izan duen txartela indargabetuko zaie.

84. artikulua.- Bizilagun txartel berria eskuratzeko, nahitaezkoa izanen da zaharra itzultzea interesdunari berria ematen zaionean, baita kasu bakoitzean ezarritako tasa ordaintzea ere.

Halaber, etxez edo beste edozein baldintza aldatzeagatik txartel berria eskuratzeko eskubidea galduz gero, orduan ere txartela itzuli beharko da.

Txartela lapurtu edo galduz gero, berehala eman beharko zaio horren berri Udalari, hark kopia egin dezan; orobat, kopia aterako da txartela hondatuta dagoen kasuetan berria egitea hobe denean.

85. artikulua.- Udalak noiznahi egiazta dezake ofizioz txartelak emateko ezarritako baldintzak betetzen ote diren, eta betetzen ez dituztenei baliorik gabe utziko dizkie, bidezkoak izan daitezkeen beste neurri edo zehapenak galarazi gabe.

MERKATARITZA, INDUSTRIA, LANBIDE EDO ZERBITZU JARDUERETAN ARI DIRENAK ETA SOLDATAPEKO LANGILEAK

86. artikulua.- 1. Barañainen merkataritza, industria, lanbide edo zerbitzu jardueretan ari diren pertsona fisiko eta juridikoek xedapen hauetan araututako aldi baterako aparkatze murriztuko eremuan aparkatzeko baimena emanen dien txartela eskuratzen ahalko dute, baldintza eta muga hauekin:

–Jarduera ekonomikoen zergan, jarduera hartarako eta establezimendua dagoen tokirako alta emanda egon beharko dute.

–Irekitzeko lizentzia beharko du izan lokalak.

–Ibilgailua jardueraren titularraren izenean egonen da edo hari atxikia, behar bezala aseguratua eta azterketa teknikoa egina.

–Txartel bat emanen da establezimendu edo jardueraren titular bakoitzeko. Jardueran aritzeko ibilgailu bat baino gehiago badago, txartel gehiago emateko aukera aztertuko da.

–Txartela eskuratu aurretik, ordenantza honen 74. artikulua araberaz ezarritako diru kopurua ordaindu beharko da.

–Merkataritza, industria, lanbide eta zerbitzu jardueretarako txartela duten titularrek bizilagun txarteletako titularrek dituzten eskubide eta betebeharrak berberak izanen dituzte, arau honen aurreko artikuluetan bildutakoak, alegia.

2. Merkataritza, industria edo lanbide jardueretan lanean soldatapean (besteren kontura) ari diren pertsona fisikoek denbora mugatu batean (merkataritzako ordutegian) aparkatze murriztuko eremuan aparkatzeko baimena ematen dien txartela eskuratzen ahalko dute, baldintza eta muga hauekin:

–Eskaera jardueraren titularrak edo enpresa kontratatzaileak egitea.

–Kontratua indarrean izatea eremu arautuko saltokiarekin edo negozioarekin.

–Ibilgailua titularraren izenean egonen da, behar bezala aseguraturia eta azterketa teknikoa egina.

–Txartel bat emanen da eskatzaile bakoitzeko; langileak 3 baino gehiago badira, txartel gehiago emateko aukera aztertuko da.

–Txartela eskuratu aurretik, ordenantza honen 74. artikulua araberaz ezarritako diru kopurua ordaindu beharko da.

ARAUBIDEA

87. artikulua.- Arau honetan xedatutakoa ez betetzea trafikoari eta zirkulazioari buruzko antolamenduaren kontrako arau-haustetzat joko da, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen 65. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta Alkatetzak zehatuko du, aipatu Legearen 71.4 artikuluan eta 73. eta ondoko artikuluetan adierazten diren eskumenaren eta prozeduren araberaz.

88. artikulua.- Ibilgailua ibilgetu ahal izanen da edo eremu publikotik kendu eta gero horretarako prestaturiko altxatokira eramanez:

–Ibilgailua aparkatze murriztuko eremuan aparkatuta dagoenean, horretarako baimentzen duen indarreko txartela jarri gabe.

–Jarritako txartela ez dagokionean baimena duen ibilgailuari.

89. artikulua.- AAME eremuko arau-haustetzat joko dira honako hauek:

1) Aparkatzea baimentzen duen indarreko txartelik gabe aparkatzea.

2) Txartelen erabilera desegokia egitea.

3) Txartela behar bezala agerian ez jartzea.

4) Aparkatzeko markatutako tokiaren esparrutik kanpo aparkatzea, beste toki bat edo batzuk ezin erabiltzeko moduan utziz.

5) Motozikleta, ziklomotor edo bizikletak aparkatzea horiendako espresuki ezarritako lekuetatik kanpo.

90. artikulua.-

1.–Arau honen 89. artikuluko arau-haustek egiteagatik, 60 euroko zehapenak ezarriko dira betiere.

2.–Hori hala izanik ere, zehapenak mailakatu ahalko dira, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen 81. artikuluan ezarritako irizpideetan oinarriturik.

I. eranskina 2018ko abenduaren 27an egindako Osoko Bilkurak hartutako Akordioaren bitartez aldatu zen, eta 2019ko maiatzaren 10eko 90. ALDIZKARIAN argitaratu dira.

1. ERANSKINA. PLANOA



AZKEN XEDAPENA

Lehenbizikoa.-Indarrrik gabe gelditu dira ordenantza honi kontra egiten dioten edo bertan araututako gaiei buruzko xedapenak dituzten lerrun bereko edo baxuagoko udal arauak.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra.-Ordenantza honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.